

IKASTETXEA	Pedro de Ursua		22-1C-10
IZENBURUA	bertsoak	MAILA	DBH 2
IRAKASLEA	<i>Antonio Agós</i>	IKASGAIA	Euskara

DBHrako Irakurketaren Ulermenerako Hobekuntza Plana.

IKASTAROAREN LANA

TESTUA

Izenburua: Bertsoak

Gaia: Zure lagun min bat hil zen joan den astean Himalaian. Gaur jaso duzu berak handik bidalitako postala.

- | | |
|--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| <p>5 Kaixo Maialen: zer moduz?
oroimena daukat zugan,
presente ² zauzkadalako
nere mendi abenturan.</p> <p>10 Zorionean gabiltza
mendiarekin loturan;
badakizu, beti gisa,
nahi ta ezinaren mugan.
Makaluko gailur horrek
gu jartzen gaitu liluran;
etzirako egongo gera
gailurrarekin joskuran.³
Har zazu muxu bero bat,
jarri konfiantza zugan.</p> <p>15 Zein bero zen muxua ta
nik zeinen hotz hartu dudan!</p> <p>20 Negar egin nahi dut baina
ez egitea hobe da,
malkoak jausiko dira
bestela postal gainera,
ta korritu ta borratu
hemengo muxu ta zera...
Intzirika hasi nahi baina
nijoa aguantatzera.⁴</p> | <p>25 Imaginatu dezaket
kanpo-base⁵ hartan bera...
Bere ilusio ta amets
guzia joan da gainbehera,
ikurrinarekin Juan nahi</p> <p>30 zazpi milako batera,
ta orain Makalun dago
heriotzaren bandera.</p> <p>35 Irratiak eman zuen
elur-jauzien abisu,
baina zuk ametsarekin
horrenbeste konpromisu
bazendun, ta holakoetan
egoskor⁶ bat dirudizu;
aurrera segiko zendun,
beti egin duzu berdintsu.</p> <p>40 Bizitzan ilusioa
herioren⁷ paradisu;
gero arte esaten ere
ez didazu utzi, aizu;</p> <p>45 ta zuri azken hitz batzuk
esan nahiean naukazu,
karta⁸ bat egingo dizut,
akaso jasoko dezu.</p> |
|--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|

[M. Lujanbio, «Kartzelako lana, gaia emanda doinu eta neurri librean»,
in *Bertsolari Txapelketa Nagusia 2001*, Bertsolari
Liburuak eta Bertsozale Elkarte, Donostia, 2002]

1 Udazken horretan 5 euskal mendizale hil ziren Makalu mendian, Himalaian. Gaiak gizartean hurbil-hurbil sentitutako gertaera horri egiten dio erreferentzia eta entzuleak ere bertsolariaren maila berean paratzen ditu.

2 *Presente*: Gogoan, oroimenean

3 *Joskuran*: Harremanetan, elkarturik; josita bezala

4 *Nijoa aguantatzera*: Malkoei eustera noa

5 *Kanpo-base*: Mendizaleek tontorrerako bidean ezartzen duten azpiegiturako gune nagusia.

6 *Egoskor*: Temati, setati, burugogor, tenkor

7 *Herio*: Heriotzaren pertsonifikazioa

8 *Karta*: Gutun, eskutitz

JATORRIA	
EGILEA	Maialen Lujanbio
IZENBURUA	Txapelketa Nagusia 2001eko kartzelako lana
ARGITALETXEA/Webgunea	Bertsolari Liburuak eta Bertsozale Elkarte, Donostia
URTEA	2002
ORRIALDEA (K)	
ISBN	
TESTU-MOTA	
OINARRIA	Inprimatua
FORMATOA	Jarraia
MOTA	Narratiboa (literarioa)
ERABILERA	Pertsonala

ESTRATEGIAK

IRAKURRI BAINO LEHEN

1. Irakurketaren helburua: bertsolaritzan garatzen diren bertso motak lantzea, adibide bat ikusita.

2. Aurretiko ezagutzak aktibatzea:

Ikasleei galdetu ea bertsolaritza saio bat ikusi duten eta zertan datzan horrelako saio bat:

- Pertsona batzuek (bertsolariek) bertsoak bat-batean botatzen dituzte eta kantatzen dituzte
- Pertsona batek (gai jartzaileak) gaia ematen die.
- Bertsoak hoberenak botatzen dituenak irabazten du.

3. Irakurketari buruzko hipotesiak egin: Testuaren egiturari, gaiari... begiratuta, nolako testua izanen den asmatu beharko dute. Kasu honetan, bertso baten aurrean gaude, lerroak silabatan neurtuta daudelako, errima dagoelako, gaia ematen delako...

OHARRAK

IRAKURRI BITARTEAN

1. Laburbiltze partzialak egitea:

► Paragrafo edo bertso bakoitzaren ideia nagusia aterako dugu, ideiak hobeki ulertzeko.

1. bertsoa: Jasotako postala irakurtzen du.

2. bertsoa: Negar egiteko gogoari eutsi egiten dio eta, emozionatuta, laguna nola joan zen imajinatzen du.

3. bertsoa: Laguna beti aurrera joaten dela eta ezin duela agurtu kexatzen da, azkenean agur gisa karta bat egingo dio.

2. Informazio garrantzitsua markatzeko estrategia materialak:

► Testuan hitz batzuk esanahi bereziarekin agertzen dira edota ikasleentzat ezezagunak izan daitezke. Testuarekin batera hiztegitxo bat agertzen da. Hala ere, hitz batzuek argitu beharra dute (lilura, intzirika, gailur...). Horretarako, ulertzen ez diren hitz horien esanahia norbaitek dakien galdetuko dugu, testuinguruaz baliatuz, eta bestela, irakaslearen laguntzaz.

OHARRAK

IRAKURRI ONDOREN

1. Laburtzeko estrategia:

► Aurretik testutik ateratako ideiak aprobetxatuz, laburpen bat prosan egitea.

2. Testu mota aurkitzeko estrategia:

► Testuak gertatu diren gauza batzuk nola gertatu ziren eta zergatik gertatu ziren kontatzen duela ohartaraziz, testu narratibo eta literarioa dela egiaztatzea, bertsoei, errimari, esapideei... erreparatuz.

OHARRAK